



BARREN

ELGOIBARKO ASTEKARIA

600. zkia.

XV. urtea

2007ko otsailaren 2a

Untanburu. 23a, asteartea



Klandestinitate garaiko andereñoak

«Gurasoen babesa
erabatekoa izan zen»



Gremioen

GIDA



Aroztegiak

Biena

Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 16
☎ 943 74 31 16

Etxekit

Sukaldeak eta bainuak
Antonio Arrillaga, z/g
☎ 943 74 43 47

Ezenarro arotzerixia

Era guztietako arotz lanak
☎ 653 707 837

Garcia

Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
☎ 943 74 32 38

Imar

Aroztegia
☎ 943 53 14 71
☎ 646 90 55 64
☎ 609 05 49 78

Lodoso Leihoak

Sigmako industrialdea
Xixillon 2-2. pabilioia 3. zenb.
☎ 943 74 34 90

Soraluze

Leihoak-Armairu enpotratuak
Santa Ana, 8
☎ 943 74 36 34

Ulazia

Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47



Iturgintza, berogailua, gasa, eguzki energia eta klimatizazioa

Ongi

Olaso Poligonoa, 15-68 pabiloia
☎ 943 74 28 80

Pagoaga

San Antolin, 13
☎ 943 74 02 79

Pagoerrot

Herriko Enparantza, 10 behea
MENDARO
☎ 943 75 60 44/659 33 43 23

Tellabide

Azpilgoeta, 19 MENDARO
☎ 943 75 50 62/607 75 50 62

Zaldua

Urasandi, 17
☎ 943 74 05 30/605 71 49 05
Faxa: 943 53 18 25

Zubizarreta instalazioak

Ubitarte, 5 behea
☎ 943 74 07 89/650 58 61 44



Proiektu eta erreformak

Estudios Arrillaga

Errosario, 15 behea (Elgoibar)
☎ 943 744 055/943 744 019
Arragueta, 12 behea (Eibar)
☎ 943 200 698



Pinturak

Biok dekorazioa S.L.

Santa Klara, 26 behea ezk.
☎ 943 74 15 52/606 43 11 19-20

Ipintza

Foruen enparantza, 4
☎ 943 74 04 40/607 74 04 40



Igeltseritza

Antonio Markez

Urasandi, 24
☎ 943 74 34 18

E. Arandia

Urasandi, 22 behea
☎ 605 70 52 04



Indusketa lanak

Lekunberri indusketak

Indusketa eta indusketa txikiak
Lekunberri baserria
☎ 943 74 20 98/629 42 56 32
koldo@movistar.com
www.excavacioneslekunberri.com



Autoentzako tindatutako kristalak

Glas Control S.L.

Olaso 27, 47. pabiloia
☎ 943 74 30 94



Elektrizitatea

Aramar

Morkaiko, 1
☎ 943 74 12 80

Azpeleta

San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

Joseba

Kilimon hiribidea, 1 (2. lokala)
MENDARO
☎ 659 934 964

Urzelai

Santa Ana, 12-14
☎ 943 74 13 76



UXUE ALBERDI



IMANOL LARRAÑAGA

ZOZOAK BELEARI...

Hamaika bertute. Propaganda pixka bat egiten utziko? Orain gutxi aurkeztu dugu ekimen hau 40 bertsolarik. Eskaintzen duguna: antolatzaileak nahi duen erako bertso saioa (bazkaria, afaria, santa eskea, jaialdia, poteoa, bertso-trama, bertso musikatua...) bertsolariko 25 euroren truke.

Helburua bertsoarekin gozatzea eta gozaraztea da eta gure baldintzak onartzen dituen edonori zuzentzen gaitzaizkio: gaztetxei, jai-batzordeei, elkarte gastronomikoei, koadrilei, kultur elkartei, euskaltegiei... Baldintzak hauek dira: bertsotarako giro ona izatea (isiltasuna, jendea entzuteko gogoz, megafonia...) eta saioaren protagonista bertsoa bera izatea (bertsolariek ez daitezela betegarri huts izan, saiora doanak jakin dezala bertsoak entzutera doala). Trukean kalitatezko bertsoak eta kantatzeko gogoz dauden bertsolariek eskaintzen ditugu prezio onean.

Ekimen honekin hainbat gauza lortu nahi ditugu: bertsoa eremu gehiagotara zabaltzea, bertsolariei geure herriatik kanpo eta normalean kantatzen ez dugun jendearekin kantatzeko aukera ematea eta herri bakoitzeko entzuleei bertsolari berriekin gozatze-ko aukera ematea.

Ilusioz hasi gara, Txino. Hamaika bilera eta sukalde-lanen ondoren, gauzak adostu eta ekimen bat aurrera ateratzea lortu dugu. Badugu web orria: www.hamaikabertute.com eta telefonoa: 692715744. Mahaiek, bilerek eta elkarriketek etekinak ematen dituzte.

«Helburua bertsoarekin gozatzea eta gozaraztea da»

UXUE

«Zuen hitzaren hotsak hatsa ematen digu»

IMANOL

Bai, mahaiek, bilerek eta elkarriketek etekina eman behar dutela sinistuta nago ni ere, baina badirudi beti ez dela laino artetik eguzkia irteten. Mahaiek baino, mahaiaien bueltan esertzen direnen kontua dela esango nuke. Uxue, gustura sumatzen zaitut bertso eta bertsolarien mundutxoan. Gainezka. Barruan daukazun guztia kanporatu ezinda bezala.

Hitza jolas bihurtu zenean sortu omen zen bertsoa. Baliteke, baina, jolasa baino, malabarismoaren traza handiagoa hartzen diot nik. Hitzekin jolasten duzue, baina kontziente zarete edozein momentutan jausi daitekeela berbaren bat lurrera. Bertso on bat entzuten dudak bakoitzean, hamar mila lagunentzuek bertso kantari imajinatzen dut neurte burua. Jendea zutik, txaloka! Horrelako une batean zer sentitzen den jakin nahiko nuke gustura. Baina nahia eta ezina eskutik helduta ikusten ditut begiak zabaltzerakoan. Bizpahiru bertso dauzkat buruz ikasita eta, kargatzen garenean, hauek botatzen ditut ingurukoak aspertu arte.

Nahiz eta badauden pare bat detaile hainbeste gustatzen ez zaizkidanak, bertsolaritza gure herriari eusten dion haberik garrantzitsuenetakoa dela uste dut. Gainera, teknologia berriak gainera jausi zaizkigunean, pozgarria da doinuz bustitako hitza izatea zuen erreminta bakarra. Ez dakit zenbat bertute daukazuen, baina zuen hitzaren hotsak hatsa ematen digu.



LABURTASUNA JAKINDURIAREN ARIMA DA



William Shakespeare

Inauterietako mozorro lehiaketa

Azken 11 urteetan Gazteen Gurutze Gorria osatzen dugunok antolatu izan dugu inauterietako mozorro lehiaketa, beti ere, Kultura Sailak urtero-urtero guri eskatzen zigulako mozorro lehiaketa antola genezan.

Pasa den urtean, arazo batzuk zirela medio, ez egitea erabaki genuen; ez pasa den urtean, eta ezta gainontzekoetan ere. Kultura Saileko teknikariari gure erabakia jakinarazi genionean, erregutu egin zigun mesedez antola genezan. Bere egoera ikusita, baietza eman genion eta antolatu egin genuen.

Aurten, erabakia hartua genuenez, ez dugu guk antolatuko, beraz, Kultura Sailak jakingo du zergatik aurten ez dagoen mozorro lehiaketarik, baina guk argi daukagu ez dugula gure gain hartzen mozorro lehiaketarik ez egotea, Kultura Sailak argitu beharko du zergatik ez duen lehenago talderik aurkitu, edota zergatik ez duen lehenago begiratu zein taldek antola dezakeen. Denbora gainera etorri bazaio eta talderik ez badu prest mozorro lehiaketa antolatzeko bere arazoa da, ez gurea, eta ez dezala gure gain erantzukizunik bota, guk inolako ardurarik ez baitugu.

ELGOIBARKO GAZTEEN GURUTZE GORRIA

Santa Agedarako koplak

Santa Agedan kopla zaharretan
Aldatu dugu papera
Iñaki De Juanan egoera
Gatozkizu kantatzera

Zuk eman baituzu dena
Zurekin gaude De Juana
Lehenik zuri gero lagunei
Besarkada bero bana

Justizi justua egin zedin
Hasia zinan eskatzen
Larogeita hamar egun dira
Ez duzula ezer jaten

Zuk eman baituzu dena...

Zenbat ziega zenbat espetxe
Joan den hogei urtean
Lehen ere aski torturatua
Oraindik torturapean

Zuk eman baituzu...

Eskuak eta oinak lotuak
Ohean lau aldetara
Esaidazue zer den tortura
Hori tortura ez bada

Zuk eman baituzu dena...

Politikoei axola gutxi
Zure egoeratik
Ote dakite zein getu zauden
Heriotzaren mugatik

Zuk eman baituzu dena...

Aspaldi etxean behar zendun
Aske zure lagunekin
Berriz zigorra gehitu zizuten
Kondena berri batekin

Zuk eman baituzu dena...

Zuk erantzuna eman zenien
Kondenatu zituztenei
Giza eskubiderik ez bada
Zuk ez duzula bizi nahi

Zuk eman baituzu dena...

Pentsamolde edo iritziak
Itxirik ditu ateak
Demokrazian zanpatzen dira
Presoen eskubideak

Zuk eman baituzu dena...

Hezur hutsetan gelditu zara
Ez duzu asko pixatzen
Indar guztiak eman dituzu
Askatasuna eskatzen

Zuk eman baituzu dena...

Gau eta egun begira zaude
Lagunek zer ari diran
Itxaropena irakur leike
Zure begien dirdiran

Zuk eman baituzu dena...

ELGOIBARKO ETXERAT



BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefono zkia**.



barren

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12 • Faxa: ☎ 943 74 37 04
E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
Publizitatea: ☎ 943 74 37 04 • E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com
Argitaratzailea:



ELGOIBARKO IZARRA
KULTURAREN ERANTZUNERAKO

KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Esther Gurrutxaga
PUBLIZITATEA Eider Iriondo, Amaia Erkizia **MAKETATZAILEA** Jaione Unanue
KOLABORATZAILEAK Antton Alberdi, Uxue Alberdi, Oihana Apellaniz, Eguzkiñe Aranberri, Jon Eugi, Ion Garate, Aitzol Gamendia, Juanito Gorostiza, Amaia Gorrotxategi, Sare Gurrutxaga, Imanol Larrañaga, Ainhoa Lendinez, Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Ane Odría, Maialen Olazabal, Jasonne Osoro, Iñigo Otaño, Alain Ulazia, Maite Uriarte, Unai Villena, Alaitz Vives, Kokoe K.E., Urruzuno **INPRIMATEGIA** Gertu **TIRADA** 4.570 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1139-1855



KEXAK

• Madalako etxe berrietarako garajeetara sartzeko bidea oztopatuta egoten da: "Seinale handi batek argi adierazten du leku horretan ezin dela aparkatu, baina jendeak ez du kasurik egiten. Bertako bizilagunok zailtasunak izaten ditugu autoa garajera sartu eta ateratzeko. Udaltzainei neurriak hartzeko eskatuko nieke, ezin dugu horrela jarraitu".



• Basarte kalean autoak abiadura handian ibiltzen dira: "Basarte auzoko goiko aldean, 16 eta 21 portalak dauden inguruan, autoak oso azkar ibiltzen dira, eta ez dago abiadura murrizteko ezer. Beste leku batzuetan zebra-bide berezi batzuk jarri dituzte kotxeak polikiago ibiltzeko, eta hemen ere horrelako zer-bait behar da, izan ere, jende asko pasatzen baita hemendik Mintxetara joateko, bai entrenamenduetara edo udan igerilekuetara. Ezer gertatu aurretik neurriak hartzea komeni da".

• Elurra egin zuen egunetan, San Pedro auzoko baserri batzuetarako bidea ez zuten garbitu: "Joan zen astean bi edo hiru egunetan zehar elurra egin zuen, eta San Pedro auzoko baserrietarako bidea zuri-zuri egon zen. Bide batzuk garbitu zituzten, baina beste baserri batzuetara ez zen inor etorri bidea garbitzera. Udaltzainak beste leku batzuetan ibili ziren elurra kentzen, eta gurera ere etorri beharko luketela uste dugu. Azkenean Trafikora deitu behar izan genuen".



TXALOAK

• Txalo bero bat herriko udaltzainei, eskailera mekanikoak martxan jartzera etortzen direlako: "Ermuaranbide kaletik San Roke-ra igotzeko eskailera mekanikoak askotan geldirik egoten dira, eta udaltzainei deitu diegan bakoitzean, berehala etorri izan dira martxan jartzera. Interesgarria izan daiteke udaltzainen telefonoa bertan jartzea, jende askok ez baitaki nork jartzen dituen martxan. Bestalde, jolasean eskailerak gelditzen dituzten umeei horrelakorik ez egiteko eskatu nahi diet, sortzen duten kaltea izugarria baita. Umeekin joaten diren gurasoentzat, erosketak egiten dituztenentzat edo jende nagusiarentzat, eskailera mekanikoak oso beharrezkoak dira".



Atal honetarako kexak, txaloak edo galderak helarazteko:

E-posta: baren@elgoibarkoizarra.com
Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12



Elgoibarko
Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Gipuzkoako
Foru Aldundia





URRUZUNIOREN *Luma*

Kaiserslautern

"Wieners Cafe Bar"ean nago, eskatu dudan txokolate beroaren zain. 2005eko urtarrilak 17 ditu gaur, arratsaldeko sei eta erdiak dira baina aspaldi ilundu du, gaua dirudi. Kaiserslauterneko kaleak ibili ditut berriz ere gaur arratsaldean. Hotzak hotza ere hozten duen hiria da Kaiserslautern. Hezurretaraino sartzeko saiakeran, bidean lagatzen badute neguko janzkiek, bera topatzen duen beste edozeri itsasten zaio gogoz. Nik hiriko kaleak ibili ditut ordu pare batean hotz horrekin borrokan, eta irabazi dut, puska baterako bederen, taberna honetarainoko bidea egin dudanean kanpoan gelditu baita.

Orain, kalera ematen duten leihoetatik begiratzean hor ikusten dut jendeari segika, pertsonen atzetik, batetik bestera, mamu bat balitz bezala. Edo kristalaren kontra aurpegia estutuz, irtetean zain izango dudala gogoraraziz, burlati antzean. Izan ere, Alemaniako negua beti suertatzen da garaile Gabonak eta gero bere lurraldean. Txokolate beroa zerbitzatu berri didate, lehenbailehen edango dut, hoztu aurretik.

Unai Villena

[ZORTZIKO TXIKIAN]



ANA ROSA OÑEDERRA

FOTERO
OKINDEGIKOA

• **Jatordu batean ogia faltatzea pekatua al da?**

Bai, nik behintzat ez dakit ogirik gabe jaten, eta uste dut asko garela horrelakoak.

• **Gehien saltzen duzuen ogi mota?**

Eskuz eginiko ogi barra.

• **Asmatuko al da inoiz egun batetik bestera gogortzen ez den ogia?**

Ez. Hori ez litzateke ogia izango. Ogia egunerokoa da.

• **Betiko galdera: ogiak gizentzen al du?**

Ez dakit, baina ezetz diote, ogi artean sartzen denak gizentzen omen du. Ogia elikagai garbia da.

• **Gehien gustatzen zaizun ogitartekoa?** Ogia txorizoarekin, hori da onena.

• **Elgoibartarrak gozozaleak al gara?**

Bai, Gabonetan lepoko hezurreraino beteta egon arren, jende asko etortzen da gosarirako gozo bila.

• **Neguan ala udan saltzen da gozo gehiago?**

Neguan. Kafesnari laguntzeko bolloak asko saltzen dira, udan izozkia edo fruta gehiago jaten da.

• **"Bikini operazio" garaian jende gutxiago ibiltzen al da okindegian?**

Bai, jendeak ogi gutxiago erosten du udan.

Ikusi nahi al dituzu aurtengo Santa Agedako erretratuak?



Astelehenetik aurrera,

MEDIATEKA_n

izango dituzu!



www.elgoiBARREN.net

Elgoibarko berri izateko beste modu bat.

 ELGOIBARKO IZARRA
KULTUR ELKARTEA

[AKORDATZEN NAIZ]



MARI TERE IRAEGI

1932an jaioa

«Lana»

Ofiziña baten hasi nitzan lanian, baiña ez kolokauta, ikasteko izan zan. Pintxia tailarrarian sartzen zan moduan, ofiziñetan neskak sartzen giñan, ikastera. Nere lagunak ere danak egin dabe lana. Beste denpora batzuk ziran, baiña ez zavan gaizki ikusitta emakumiak lana egittia. Gero, ezkondukuan, askok laga egitten zebeñ familixia atenditzeko: normalena hori zan.

Denpora gitxi egin naban nik ofiziñan, etxatan gustatzen. Jostia gustatzen jatan neri. Eibarren ikasi naban "corte y confección", eta kanporako josten hasi nitzan. Nere kuartuan nakan nere jostundegixa makinatxo batekin,

eta hantxe pasatzen naban denpora mordu. Umien erropekin espezializau nitzan.

Nagusixenakin hasi nitzan, baiña umiena gehixago gustatzen jatan. Oso sakrifikaia da jostunana lana. Gaur egunian iñork ez dau nahi eta nik arrazoia ematen diuet. Ordu asko sartu eta huskerixa bat irabazten da. Beste edozein lanetan gehixago irabazten da, eta askoz libertade haundixagua dakazu.

Udan ere askotan gabeko hamaiak arte egitten naban lana, danak nahi izaten zebeñ egun batetik besterako, eta kunplitzia nahi nabanez, ba, egun osua josten. Ez naban oporrik eukitzen.



[GURE BERBAK]

Konparaziozko esaldixak (4)

Gaurkuan konparaziozko esaldixen azken atala izango da.

Era askotariko adibidiak sartuko doguz: **BESTE, BEZ(A)IÑ, A(D)IÑA, BAIÑO ...-AGO, ZENBAT ETA ... -AGO, (ORDUAN ETA) ...-AGO, AHAL DAN -EN.**

Hona, ba, konparaziozko esaldixen azken adibidiak:

- *Gure garaixan, parorik ez! Orduan hamar ordu egiñ, edo hamabost egiñ... Nahi zendun beste.*

- *Ez, orduko hasitta, telebisorako ya hasitta zauden euskera batua puskat. Guk telebisiua ekarri genduanerako, bai. Oin beste ez, e!*

- *Gabon háretan aiña turroi sekula ezto-gu jan.*

- *Ni pentsatzen egoten naiz, gaurko bat edo bi (seme-alaba) diran horrek, eztirala gure lehengo koadrilla haundixa bezin feliz.*

- *(Andriari) neri baiño gehixago ententzen jako gaiñera (pelotia).*

- *Eske oiñ baiño pertsonak usten dot sanuaguak giñala, e! Sanuak Zenbat pobri(ag)o, eta pertsona sanuagua da nik usten dotena.*

- *Esaten zigun guri, batek irakuri bi hoja edo, eta harek letzen zaban zera, buruz, hauraxe a(ha)l dan onduen egitten.*

Jesus Mari Makazaga

ESKERTZA

2007ko urtarrilaren 29an hil zen **Pedro Sodupe Esnaola**ren sendiak, bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



KLANDESTINITATE GARAIKO ANDEREÑOAK

IKASTOLAKO LEHENENGO ANDEREÑOAK

Franco garaiko klandestinitatean andereño lanetan jardun zuten emakumeak saritu eta omendu ditu Sabino Arana Fundazioak. Guztira Euskal Herriko 205 andereño izan dira sarituak, eta horien artean bost emakume elgoibartar daude: Itziar Ajuria, Nekane Iturbe, Ione Etxabe, Mari Isabel Mujika eta Mari Juli Konde. Gaurkoan bostak ekarri ditugu BARREnera, eta garai hartako kontuak izan ditugu mintzagai. Ba al zatozte gurekin ikastolara?

Eusko Jaurlaritzak 1968. urtera arte klandestinitatean andereño lanetan aritu ziren emakumeak saritu eta omentzea erabaki du. Garai hartan andereñoek oso baldintza txarretan egiten zuten lan, ez zeukaten gizarte segurantzarik, eta horren nolabaiteko konpentsazioa ematea da sari honen helburua. Andereñoek esan digutenez, 1968. urtetik aurrera ere, egoera ez zen asko hobetu: “badakigu data bat jari behar zela muga moduan, baina 1968tik aurrera ere, garai gogorak bizi izan genituen. Franco hil zenean hasi zen hobetzen egoera, 75-76 urte inguruan”.

EUSKARAZ IKASI, BAINA AZTERKETA GAZTELERAZ

Euskara maite zuten andereño hauek, eta gure hizkuntzari bultzada emateko hel-

buruarekin hasi ziren irakasle lanetan. Euskaraz egiten zuten dena ikastolan, baina azterketa gaztekeraz egin behar izaten zuten ikasleek. Nekane Iturbek honela gogoratzen du etapa hura: “ez zen erraza! Gure ikasleek estuasun handiak pasa behar izaten zituzten. Dena euskaraz egiten genuen, baina publiketan azterketa erderaz zeukatena”. Honetaz gain, euskarazko materialik ez zeukatela gogoratzen dute: “ez genuen apenas libururik euskaraz, dena geuk sortu genuen. Irakurketa kartilla bat egin genuen eta geroago Ondaruko ikastetxe baten kopiatu egin zigun eta patentatu gainera”, esan digu Mari Julik. Itziar Ajuriak, bestalde, liburu bakara zeukatela gogoratzen du: “*Xabierto* liburua bakarrik geneukan, harekin moldatu behar izaten genuen, ez zegoen besterik”. Ione Etxabek ondorengo

gaineratu digu: “euskaraz ikastearren, besteak baino gutxiago ez zirela demostratu behar izaten zuten gure ikasleek”.

LAN BALDINTZA ZAILAK

Itziar Ajuria izan zen lehenengo andereñoa, eta oso ondo gogoratzen du zelako zaila zen ordu hartan klaseak ematea: “ez neukan titulurik eta beti mehatxu berbera jasotzen nuen, 6 urtetik gorako umeak ezin zirela nire klasean egon. Beti beldurrez egoten nintzen”. Elizaren babes handia izan zutela aipatu digu: “apaizak izugarri laguntzen zigun inspektoreak etortzen zirenean”. Nekane Iturberen esanetan, “egun batetik bestera ikastetxea itxiko zigutela uste genuen, hori zen gure beldurrik handiena”.

Ikastola klandestinoak kokaleku diferenteak izan zituen Elgoibarren. Elizan, Bandak egun entsaiatzen duen lokala, Goiti... “zenbat hauts, zenbat hezetasun eta zenbat hotz jasan ote dugun”, aitortu digu Ionek. Ikastetxeko altzariak ere ez omen ziren gaur egungoak bezalakoak. Itziarrek esan digun bezala, “orduko umeak gogorragoak ziren. Lehenengo lurrean eseritzen ziren, gero jarleku luze-luze batzutan...”. Klaseak gainezka egoten zirela esan digute: “andereño bakoitzak 64 ume inguru izaten genituen hasierako urteetan. Denak adin diferenteetakoak ziren, denak batera egoten ginen gela batean”.

Datu batek atentzioa eman digu. 205 andereño saritu dituzte, baina maisu bat bera ere ez: “baldintza prekario haietan nor egingo zuen ba lan? Emakumeak bakarrik aritzen ginen, gizonezkoak tailerrera



joaten ziren”, esan digu lonek. “Soldata oso bajua zen eta ez genuen gizarte segurantzarik. Orduan gazteak ginen eta ez genion horri garrantzirik ematen, baina orain, urte haietako lanak ez digu jubilaziorako balio. Sari hau eman beharrean, urte haietako lana kontuan hartzea nahiago genuke, baina...”. Gerora gizonezkoak ere sartu ziren maisu, baina irakaskuntzan orain ere, emakumeak gehiago direla aipatu digute.

GURASOEN KONFIANTZA

Urte haietan jasan zuten arriskua eta presioa izugarria izan zen, baina orduan ez ziren herretaz kontziente: “gazteak ginen eta ilusio handia geneukan, gehiegi akaso. Orduan ez ginen konturatzen arriskua hainbestearainokoa zela. Atzera begira jartzen garenean konturatzen gara horretaz”, esan digute.

Bestalde, gurasoen babes erabatekoa izan zela kontatu digute: “Ikastolara etortzen ziren umeen gurasoen babes erabatekoa izan zen. Apustu garrantzitsua egin zuten, ikastolaren etorkizuna zein izango ote zen jakin gabe gurera ekartzen zituzten umeak. Eskertzekoa da guraso haiek eman ziguten babes erabatekoa eta konfiantza”.


Elgoibarko ume mordoak pasatu da andereño hauen gelatik, seguru gogoan izango dituzuela, baina beraien ere ez omen dira ahaztu: “izen guztiak gogoratzea zaila da, baina ikasle guztien aurpegiak gogoan gelditzen zaizkizu, eta gaur egun oraindik ere, garai hartako ikasle askok agurtzen gaituzte kalean. Oso polita da”.

IRAKASLEA BETI IKASTEN

Bost andereño hauetatik Mari Juli Kondek eta Lone Etxabek jarraitzen dute lanean. Teknologia berriek berandu harrapatu dituztela esan digute: “denbora mordo kentzen digu ordenagailuak. Lana errazteko dela esaten dute, baina niri arazo mordo ematen dizkit”, esan digu lonek. Poliki-poliki ohitzen ari direla esan digute. Dena dela, beti gauza berriak ikasten ari direla esan digute, izan ere, hezkuntza sistema etengabe aldatzen baitute. Garai hartan askoz gehiago abesten zutela gogoratzen du Mari Julik: “dena besten ikasten genuen, baina irakasle batek esaten duen moduan, hainbeste abestuta ere, mediku, abokatu eta enpresagizonak berdin-berdin ateratzen ziren”.




Goian, Nekane eta Itziar ume mordo batekin eliza aurrean.



Erdian, Itziar gela batean irakasgaia azaltzen.

Beheko argazkian, lone eta Itziar Loiolara egin zuten txango batean.



[PROTAGONISTA]



Pedro **Sodupe**

Pedro Sodupe "Gelatxo" soinu-je ezaguna hil zen astelehenean, urtarilak 29. 78 urte zituen eta gaixorik zegoen Mendaroko Ospitalean. Azken unera arte musika jotzen jarraitu zuen Gelatxok. Bere fandango eta arin-arinetatik aparte, tango, bolero eta pasodobleak ere jotzen zituen, bere ohiko taldearekin (Eguren eta Ziolarrekin), besteren batekin edota bakarrik; adibidez igandero Elgoibarko jubilatuetan egin izan dituzten dantzaldi ospetsuetan. Nahiz eta soinu handia jo, trikitixa barrubarruan izan du beti. Dantza-konkurtsuetan ere, punta-puntan ibilitakoa zen Gelatxo.

[NOTIZIA]

Alfredo Etxeberria izango da EAJren zerrendaburua Udal Hauteskundeetan

Maiatzean izango dira Udal Hauteskundeak eta herriko alderdi politikoak hasi dira zerrendak prestatzen. EAJk Alfredo Etxeberria aurkeztuko du Elgoibarko alkatezarako. Astelehenean egin zuten herriko jeltzaleek alkategaia hautatzeko batzarra. Marivi Agirregomez-korta eta Alfredo Etxeberriaren artean aukeratu behar zuten, eta bigarrenengoak 22 boto gehiago jaso zituen, guztira 78.

PSE-EE alderdian Ovidio Campello

PSE-EE alderdian bestalde, Ovidio Campello izango da zerrendaburua, duela lau urte bezalaxe. Eusko Alkartasuna alderdiko kideekin hitz egin dugu, eta oraindik lanean ari direla esan digute, eta seguruenik, datorren asten jakingo dugu zein izan-



go den beraien alkategaia. Ezker Batua eta PP alderdiek ere, ez daukate oraindik zerrenda itxita. Azkenik, Einbiouren kasua daukagu. Iñaki Odriozolak esan digunez, herri programa prestatzen ari dira eta euren helburua hauteskundeetan parte hartzea da.

[ZENBAKIA]

86.309.088

Elgoibarko Udalak 86.309.088 euro jasoko ditu 2007. urtean Gipuzkoako Foru Aldunditik, hasieran espero zutena bai-

no 415.225 euro gehiago, hain zuzen ere. Gipuzkoako udalerrietik 419 milioi euro jasoko dituzte guztira Foru Aldunditik.

asteko [ARGAZKIA]



Askok uste zutena baino eta beste askok nahi zutena baino elur gutxiago egin zuen herriko kaleetan, baina mendiak ederki zuritu ziren joan zen asteburuan. Eguraldi bikaina egin zuen elurraz gozatzeko. Argazkian ikusten ditugun herritar hauek, San Pedro aldera igo ziren, eta sekulako elur panpina egin zuten, beraien baino handiagoa. Trineoarekin aldapan gora eta behera ere jolasean aritu ziren. Dudarik gabe, elurrak gozamenarako aukera paregabea eskaintzen du, hori bai, mendiak, izan ere, errepidean buruhauste handiak sortu baitziren.

Alzola auzoko beharrak defendatuko ditu Zubibai Elkarteak



Alzoa auzoko zenbait bizilagunek Zubibai Elkarteak osatu dute, beraien auzorako beharrak eta hobekuntzak defendatzeko helburuarekin. Elgoibarko Udalarik batera bat eskatu diote eta honekin batera, hobekuntzarako 26 puntu dituen zerrenda bat aurkeztu dute bertan.

Hobekuntza puntuak

Auzorako sarbidea eta N634 errepidean dagoen zebra-bidearen gaiak dira bizilagunak gehien kezkatzen dituztenak. Beraien ustetan, bi puntu horietan dagoen

arriskua oso handia da. Abiadura murrizteko semaforoak edo errepide gaineko pasabideren baten beharra ikusten dute. Honetaz gain, garraio publikoaren zerbitzua hobetzea, herriko parke eta frontoia garbitzea, etxebizitza hutsei irtenbide bat ematea, auzoa garbi mantentzea eta aparkalekuak gehitzea eskatzen dituzte, besteak beste.

Momentuz auzoko 8 lagunek osatzen dute Zubibai Elkarteak, baina edonor izan daiteke taldeko partaidea. Interesatuak 943741350 (Alfonso Rubio) telefonora deitu dezakete.

Plaza Txikia eta ingurunea asfaltatzen ari dira



Doako OTA zerbitzua martxan jarri aurretik, Plaza Txikia eta bere ingurunea asfaltatzen hasi dira. Lurra berdindu eta asfalto berria jartzea izango da lehenengo lana, bai Plaza Txikian eta baita BBVA zegoen pareko aparkalekuan. Ondoren, lurra margotuko dute kotxe bakoitzaren aparkalekua zein den adierazteko. Honetaz gain, Plaza Txikia eta Leku Eder parkearen artean dauden etxeak lotzen dituen pasabidea ere konponduko dute: lurra berdindu eta espaloiko ertz berria jarriko dituzte besteak beste.

[MOTZ-MOTZIAN]

AEK euskaltegiak matrikula zabalik

AEK euskaltegiak berriro ireki du matrikulazio epea, beraz, irailean euskara ikasten hasi, hobetzen jarraitu eta EGA edo perfilen bat lortzeko ikastaroetan izenik ematerik izan ez zutenek, oraintxe dute bigarren aukera. Interesatuak 943 741332 telefonora deitu edo elgoibar@aeonet.net helbidera idatzi dezakete otsailaren 9a baino lehen.

Bidezko Merkataritza

Bidezko Merkataritzaren dendak berriro zabalduko ditu ateak asteburu honetan. Bihar, zapatua, goizeko 10:00etatik eguerdiko 13:00ak arte egongo da irekita. Datorren hilean lehenengo 3 egunetan zabalduko dute denda, apirilean berri, Aste Santu inguruan, hau da, hilaren 12an, 13an eta 14an eta maiatzean, 10ean 11n eta 12an.

1951ko kintoen bazkaria

1951ko kintoek bazkaria egingo dute datorren martxoaren 10ean Sigma jatetxean. Interesatuak jatetxean eman dezakete izena (943748531).

San Bartolome jaiak

Gazteen Egunerako musika taldeen proposamenak Kultura Zerbitzura bidali daitezke apirila baino lehen. 943742158 telefonora deitu daiteke, edo kultura@elgoibar.org helbidera idatzi.

Gazteria independentistaren deialdia

Auzitegi Gorenak Segi erakundea terrorista dela esan du. Ondorioz, Gazteria Independentistak Euskal Herri osoari eta bide batez, elgoibartarrei dei egiten die domekan, otsailak 4, Bilboko Arenalean 12:00etan egingo den kontzentrazioan parte hartzeko. Hilaren 10ean manifestazioa egingo da Donostian.

Inkesta

67 urteko emakume batek bikiak izan ditu AEBetan.

Zure ustez, zein da umeak edukitzeko adinik aproposena?

LOLI TORRES
Etxekoandrea
35 urte



“30 urte ingurua da onena. Nik 24 urterekin izan nuen lehenengo umea, gazteegi agian. Baina 67 urte gehiegi da, emakume horrek ezin ditu umeak zaindu.”

MARLENE MOYE
Etxekoandrea
25 urte



“30 edo 32 urte, hortik gora ez da gomendagarria umeak edukitzea. Nik oso gazte eduki dut umea, 25 urterekin, baina pozik nago, umeaz gozatzeko denbora daukat.”

M^a ROSARIO ETXEBERRIA **VERONICA RODRIGUEZ**
Etxekoandrea
53 urte



“22 urte. Nik 25ekin izan nuen umea eta lehenago eduki izana gustatuko litzaidake. Orain biloba ere badaukat eta berarekin gozatu dezaket.”



“25 urte. Hortik gora, 35-36 ingurura arte luzatu daiteke, baina geroago arriskutsua dela iruditzen zait, bai umearentzat eta baita amarentzat ere.”

[BAI ala EZ?]

Batasunarekin biltzea delitua dela uste al duzu?

BAI %2

“Legeari begiratzan badiogu, delitua da. Batasuna ilegalizatu-ta dago. Beste kontu bat da lege horiek ondo dauden ala ez, akaso hori da aldatu behar duguna; legedia.”

EZ %98

“Ez, ez eta ez. Nola izango da delitua? Elkarriketa da konponbiderako modu bakarra. Alderdi politikoek ezin badute elkarrekin hitz egin, nola lortuko dugu bakea?”

Datorren asterako.... **San Blas Eguna ospatuko da bihar, otsailak 3.**

Zuenean ba al dago San Blas opila jateko ohiturarik?

Bidali SMS bat:

BARREN (espazioa) **ERANTZUNA**

7505 zenbakira

SMS kostua: 0'90 euro + B.E.Z.-a.



Hilean behin afari bat zozketatuko dugu **Gabi jateanean**. Zenbat eta erantzun gehiago, aukera gehiago!

JAIOTAKOAK



Kerman Sanchez Sagasta
[Urtarrilak 3]
Neka eta Miren



Asier Etxeberria Fulgencio
[Urtarrilak 13]
Andoni eta
Ismene



Naroa Unzueta Garcia
[Urtarrilak 15]
Agustin eta Alicia



Oihane Oñederra Fernandez de Jauregi
[Urtarrilak 17]
Javier eta Itxasne

HILDAKOAK

Maria Astigarraga • [89 urte] • Urtarrilak 17
Luis Etxaniz • [96 urte] • Urtarrilak 17
Antonio Casado • [70 urte] • Urtarrilak 18
Felisa Arozena • [84 urte] • Urtarrilak 18
Begoña Mendizabal • [78 urte] • Urtarrilak 23
Sole Albo • [83 urte] • Urtarrilak 25
Pedro Sodupe • [78 urte] • Urtarrilak 29

EZKONTZAK

*Urtarrilean ez da ezkontzarik izan Elgoibarren

Atal honetan zuen seme-alaba jaioberriaren argazkia jartzea nahi izanez gero, deitu **BARREN** astekarira **943 74 41 12** telefonora edo bidali e-postaz **barren@elgoibarkoizarra.com** helbide elektronikora.

ETXEBERRIA

Hileta zerbitzua

OSOA eta 24 ORDUKOA

TANATORIOA



**KUTXAK
TRASLADOAK
KOROAK**

**NORBANAKOEI
eta KONPAINIEI
zuzenduriko
zerbitzuak.**

**Donostia eta
probintziako
erietxe zentroetan
ere bai.**

Santa klara, 14 20 870 ELGOIBAR
Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27 (Etxekoa) 943 74 01 17 - 74 16 56
(Mobila) 608 77 07 01

INGURUGIROA

KILIMOI IBAIAREN HOBETZE LANAK

Dagoeneko abian dira, Kilimoï ibaiaren eta ingurugiroaren ekosistema berreskuratzea helburu duten lanak Mendarón. Egitasmo hau, duela denbora dezente Eusko Jaurlaritzako Uren Sailak proposatu zuen proiektua dugu, pasa den urtera arte geldirik egon dena. Iragan den abenduan, "Construcciones Murias" enpresari esleitu zitzaizkion Kilimoï ibaiaren berriztatze lanak eta proiektuaren hasierako aurrekontua, 527.750 eurokoa izan zen. Obrak urtarrilaren 8an hasi ziren eta 4- 6 hilabeteren buruan, hau da, udaberri-uda alderako obrak amaituak izatea espero dutela jakinarazi digu Esti Gonzalez, Mendaroko alkateak. Modu berean, proiektuaren xehetasunen berri eman digu.

Kilimoiko ingurugiroa berreskuratze lanak martxan daude dagoeneko. Batik bat, bere garaian uholdeak sahiesteko eraiki zen kanalizazioaren gainean zentratuko dira lan hauek. Hain zuzen ere, "Fabrika Zaharretik" Gabiola Txiki ondoko presaraino, Garagartza auzoan.

Esti Gonzalezek gogorazi digunez, "aurrez, Kilimoï ibaiak zeukan landaretza erabat desagertu zen eta azkenengo zatia, kilometro inguru, zementuzko kanal baten bidez bideratua izan zen. Hain juxtu, ingurune horren eta ibaiaren suspertze ekologikoa dira obra hauekin lotu nahi diren helburuetako zenbait. Besteak beste, berdeguneak eta presatxo batzuen bitartez, zenbait

geldiune sortu nahi dira, nolabait, lehengo, han bizi ziren arrainek eta bereziki amuarrainek beren habitata izan dezaten ostera ere. Presarik ezean, errekek oso jarraipen luzea zeukan eta abiadura handia hartzen zuten. Ondorioz, animaliak ezin ziren bertan bizi". Ildo beretik jarraituz, aipatu beharra dago, ikusmenerako ere ekariko duen hobekuntza nabarmena. Gaur egun, zementuzko kanal bat besterik ez dagoen leku hori, bestelako bizitasuna eman gura zaio. Bestela esanda, errekek garai batean zuten berezko itxura hori eskuratzea da Esti Gonzalezen hitzetan, bigarren xedea.

Eremu honetan, hornigoia, landaretzarengandik ordezkatua izango da, hegale-

tako haresien oinetara. Hemendik ubide berria igaroko da. Horrela, gauzaturiko kalkulua hidraulikoen arabera, ur goraldiak gertatzen direnean, egun ibaiak duen uraren maila mantentzea berrimatu du.

EGITASMOA

Esti Gonzalezek azaldu digunez, iaz, Eusko Jaurlaritzak Mendaroko Udalarik, proiektu hau aurrera eramateko aukera eskaintzen zuen partida bat, bazuela jakinarazi zion eta ondoren, Mendaroko Udalarik galdegin zion, ia bat zetorren egitasmoarekin. "Hasierako proiektuak, Bilale baserriko presa ondoko potzua desagerpena aurreikusten zuten. Honen aurre-



Egurrezko pasabidea eta 1. zona lotzen diren lekua.



Bigarren zonaldearen hasiera.

an, guk adierazi genuena zera izan zen: "proiektuarekin ados geundela, baina, potzua mantentzeko baldintzapean eta aldi berean, obrak aprobetxatuz, bertaraino iristea errazten duen eskailera batzuk egitea eskatu genuen". Izan ere, potzu horretan, herritarak eta bereziki, mutil koxkorak bainatzera joan izan ohi dira. Honela, potzurako irisgarritasuna nabarmen hobetuko da herritarrentzat.

LANEN FASEAK

Kilimoi ibairen ekosistema berreskuratzeko lanak, Haranerrekako Bilale izeneko baserriaren ondoan dagoen presatik hasi eta Kilimoi ibaia Deba ibaiarekin elkartzen den punturaino luzatzen dira. Berriztatze lanen fase nagusiak lau dira:

Lehenengo zonaldea, trenbidea igarotzen den pare horretatik (zubia aurkitzen dena) Kilimoi ibaia, Deba ibaiarekin elkartzen den punturaino luzatzen da. Hemen, aurrera eramango den jarduera txikia izango da; soilik, urak (ur korronteak) apur bat motelago joan daitezten, ur geldiuneak edo urlo batzuk eraikiko dira.

Bigarren eremua berriz, bi esparrutan banatua dago. Oso zona luzea da honakoa. Trenbide gunetik, Altzibarko etxea dagoen punturaino du jarraipena, gutxi gora behera, mojen kapera aurkitzen zen lekuraino. Hemen ere, presatxoak jartzeaz gain, ibaiaren inguru guztia girotu nahi da. Ibaiaren behe aldean, guztia zementua izan beharrean, harriak jarriko dira



eta ezker zein eskubi aldeetan landareak eta berdeguneak ezarriko dira, gerizpea eman dezaten eta modu berean, amuarrainak bizi ahal izan daitezten, funtsean, beren bizilekua girotzeko.

Hirugarren zonaldeari dagokinez, esan, eremu hau, Altzibar etxetik, Barberokua etxeraino luzatzen dela. Etxe tartean geratzen den ibaiaren zatia da, hain zuzen ere. Hortik gertu, ezker eta eskuin aldean etxeak daude. Hemen azkartasun gehiago hartzen du ibaiak, malda gehiago ematen baitzaio. Alboetan, berriz, zume negartiak eta sahatsak landatuko dira, berdetsuna eta gerizpea emate aldera.

Laugarren zonaldea, Barberokuatik presaraino doan zatia da. Presak, presaren goitik eta behetik geratzen diren arrainak, inkomunikaturik edo bakaturik egotea eragiten du. Konponbide gisa, "arrainen eskala" egitea proposatu da, amuarrainei uretatik gorantz ere joatea ahalbidetuko dien bide bat, alegia. Horrela, presa hori ez dadin izan goi aldeko eta behe aldeko amuarrainentzat elkarrekin harremanetan jartzeko muga edo oztopo fisiko bat. Horrez gain, aurrez esan bezala, potzua ere bere horretan mantenduko da eta eskailerak ere, jarriko dira, bertaraino erraz iristeko.



2. eta 3. zonak bereizteko urtegia eraikiko den lekua.



Arrainen eskala bat eraikiko den lekua.

GAZTIA NAIZ

ar**GA**zkitan...

IMH
eguna



1 Ping-pong txapelketan jokalariek profesionalak ematen zuten. Ikusleen animoak ere bikainak izan zirela begi bistakoa da!

2 Hotzari aurre egiteko modurik onena barrena berotzea izan zen. Denetarik zeukaten: txistorra, patata tortila, gazta eta menbriloa... Sukaldaria primerakoa!



3 Eta txistorrari bultza egiteko garagardo trago bat. Nola bestela?

4 Bikotetako lasterketan ez zuen jende askok parte hartu. IMHri lau buelta ematea ez da makala! Neska arraro samarrak, ezta?



BARREN

elkarrizketa...

MACHINE TOOLS

PASA DEN BARIKAKUAN, "MACHINE TOOLS" MUSIKA TALDEAK KONZERTU ARRAKASTATSUA ESKAINI ZUTEN IMH EGUNAREN BAITAN. IMHKO KAFETEGIA JENDEZ LEPO BETE ZEN ETA BERTARA GERTURATU ZIRENEK, GIRO EZINHOBEOZ GOZATZEKO AUKERA IZAN ZUTEN. HORI DELA-ETA, MACHINE TOOLS TALDEA, GERTUTIK EZAGUTU NAHI IZAN DUGU. MUSIKA TALDE HAU, IMHKO 5 LANGILEK OSATZEN DUTE. ANE IRIONDO TALDEKO ABESALARI ELGOIBARTARRAK, GAINERAKO TALDEKIDEEN LAGUNTZAREKIN, ATSEGIN HANDIZ ERANTZUN DIZKIGU GUK LUZATURIKO GALDEREI. EZER BAINO LEHEN, MACHINE TOOLS TALDEAK EUREN ESKERRIK BEROENAK EMAN NAHI DIZKIE OSTIRALEAN KONZERTUA POSIBLE EGIN ZUTEN GUZTIEI ETA BAITA BERTARATU ZIRENEI ERE, ESKAINITAKO LAGUNTZA ETA ARRETAGATIK.



Ane Iriondo: "Gure habitat naturalean sentitu ginen taula gainean"

Noiz erabaki zenuten taldea sortzea?

Irailaren bukaera aldera, Alberto Bergarak talde bat sortzeko proposamena egin zigan, IMH Eguna berpizteko nahiarekin. Denok gustura onartu genuen proiektua eta gogor lan egin dugu behar den moduan ateratzeko.

Zenbat deboraz entsegatu duzue?

Urriaren 21ean izan genuen lehenengo entsegua, taldekide baten sotoan. Ondoren, Mendaroko Udalak utzitako lokal bat erabiltzen egon gara kontzertuko eguna iritsi arte.

Zer moduz sentitu zineten taula gainean?

Gure habitat naturalean. Ez da guztiz egia baina beno... esan beharra dugu, bukaera aldean askoz ere lasaiago geundela.

Ostiraleko giroa ikusita, beste kontzerturik eskaintzeko asmorik bai?

Egia esan, oraindik guztiz erabaki gabe daukagu. Pare bat proposamen izan genituen ostiralean. Baina, oraindik ez dugu ezer erabakitzeko denborarik izan.

Aldez aurretik beste taldeetan ibili al zarete?

Alberto Bergara eibartarra, musiko autodidakta da. Elgoibarko zenbait taldeetan jo zuen 80ko hamarkadan. Unai Azkue donostiarra, beti kitarra jotzen aritu da estilo ezberdineko hainbat taldeetan, Lezoko Cromlech edota Donostiako Sickmalko, eta hainbat poesia emanalditan kitarra laguntzaile bezala. Leire Alberdi mendararra, Lili Moon taldean aritu da zenbait urtetan zehar batera jotzen. Uler 600 eta L.E.D. taldeetan

ere, egin izan ditu perkusio kolaborazio ezberdinak. Xabi Bastida eta niretzat estreinako aldia izan da, nahiz eta kontzertuan ez antzeman izan.

Bertsioak jotzen dituzue. Zeintzuk dira zuen musika erreferenteak?

Denetarik. Pop, rock, metal, folk, elektronikoa... Taldean bertan, gusto ezberdinekin aurkitu gara baina ez dugu zailtasunik izan kantak aukeratzeko orduan. Hasiera batean, geuk konposaturiko abesti pare bat sortzea zen gure intentzioa, baina, errepertorioko bertsioak prestatzeko denbora besterik ez dugu izan.

Non jotzea gustatuko litzaizueke?

Gutxienez, Bergarako Jam-en edo Bilboko Kafe Antzokian (jaja). Lagun artean, gustora sentiaraziko digun edozein lekutan.

SANTA AGEDA

Santa eskeko doinuek kale, auzo eta baserriak girotuko dituzte



Santa Ageda egunaren atarian gaude eta hori dela-eta, Elgoibarko bi talde santa eskean aterako dira. Etxegiña taldekoak, bihar ibiliko dira herriko kale eta auzoetan barrena eskean eta koplak abestuz. Elgoibarko Izarrak antolatutako santa eskea, berriz, domekan izango da eta baserri baserri ibiliko dira.

Jon Uriguen, Etxegiña taldean aritzen den koplariak azaldu digunez, bihar, Etxegiña taldekoak, goizeko 9etan parrokia atzeko bolatokian elkartuko dira, ondoren, bi taldetan banatzeko. Horrela, talde batek ondorengo ibilbidea egingo du: San Roke, Trenbide kalea, Sigmako etxeak eta Santa Klarako auzoa, bigarrenak, Ermuaran Bide, Mintxeta eta beste egiten dituen bitar-

tean. Beranduago, talde biak Urasandiko "La Union" elkartearen elkartuko dira, hamaitakoa egin, eta handik talde biak bateratuta beren ibilbideari jarraitzeko. Urasandi igaro ondoren, San Lazaro egoitzarako bidea hartuko dute, hemendik San Frantzisko, San Bartolome, Antonio Arrillaga eta Santa Ana kaleak zeharkatuz, Errosario kalera iritsi arte, 14:00ak aldera, Ama Birjinen aurrean salbea abestuz bukatzeko. Ondoren Baltasar Elkartearen bazkaria egingo dute parte hartzaile guztiek. Bi koplari nagusi egongo dira: Kepa Urain, eta Jesus Urizar. Beti bezela, batzen den dirua Kari-santentzat izango da.

Domekan, berriz, Elgoibarko Izarrak antolatuta, goizeko 9:30ean aterako dira

santa eskean Plaza Handiitik, 24 lagun inguru eta iluntzeko 20:30ak arte arituko dira kantuan. Bazkaria San Antolineko tabernan egingo dute. Bi taldetan banatuko dira, hauek ere. Talde batek San Migel eta San Pedroko auzoetan baserri baserri jardungo duen bitartean, besteak, San Lorenzo, Urruzuno eta San Antolin auzoetako baserriak bisitatuko ditu. Koplariak, German Meabebasterretxea eta Juan Mari Areitio izango dira. Bertsolariak, Javier Ziarda eta Juan Mari Narbaiza eta trikitilariak, Baltzola anaiak eta Ekaitz eta Arantza.

Honenbestez, kaletar eta baseritarrek makilkaden eritimoan Santa Agedaren omenezko doinu eta koplak entzuteko parada izango dute astebukaera honetan.

Elgoibarko dantzariak lorpen onak egiten dihardute

Gipuzkoako Euskal Dantzarien Biltzarra antolatzen duen "Aurreku eta Soinu Zahar Txapelketa" hasia da eta Elgoibarko Inazio Bereziartua Musika Eskolako dantzariak maila ona erakusten ari dira herri desberdinetako jaialdietan. Aitor Asenjok 9. postua eskuratu zuen azaroan Azkoitian eta Imanol Iturrinok 13. postua. Abenduan, Legazpin, Imanol 9. geratu zen eta Aitor 12. postuan. Azkenik utarrilean, Beasainen jokaturako txapelketan Arantxa Ferreiro 2. postuan sailkatu zen, Amaia Astigarraga 5. eta Ainhoa Agirre 10. gelditu zen. Martxoaren 24an eta 25ean Elgoibarren izango dute zita.

"Kutsidazu Bidea Ixabel" filmak izan zuen harrerarik hoberena 2006. urtean Elgoibarren



Kultura Saitetik luzatu dizkiguten datuen arabera, iaz, Elgoibarren eta Herriko Antzokian ikusle gehien bildu zuen filma, euskarazko "Kutsidazu Bidea Ixabel" izan zen, guztira, 689 pertsonak ikusi baitzuten pelikula hau. Bestalde, publikoari arreta gutxien deitu zion filmea, "Bambi 2" izan zen. Aipatzekoa da, era berean, 2005. urtean 10.066 ikusle erregistratu baziren, 2006. urtean, kopuru hori 9.865 izatera jaitsi zela. Udaleko kultura teknikariak azaldukoaren arabera, "Herriko Antzokia ez da errentagarria. Hala ere, Udalak zinearen aldeko apustu argia egin du: zine komertziala, Zine Kluba, Aire Libreko Zinea... ez dago beste herririk horrelako zine eskaintza zabalarekin".

ANTZERKIA

“El vendedor de tiempo” antzezlanaren Herriko Antzokian izango da datorren barixakuan, 22:15etik aurrera

Datorren barixakuan Ados antzerki konpainia donostiarrak “El vendedor de tiempo” antzerki lan berria taularatuko du Elgoibarren.

Musikal honetako protagonista, sistema kapitalista batean bizi den gizonezko soil bat da. Lanbidez kontularia da eta bere bitzizako momentu batean, krisi batean murgilduko da. Bere bizitza erabat hipotekatua dagoela ohartzen denean eta, bere zaletasunaz disfrutatzeke unea iristen zaionerako, nagusiegia izango dela konturaturiko da. Horrela bada, aberats izatea otutzen zaio eta horretarako, zera ondorioztatzen du: gizarteari, gizarteak behar duena

saldu behar diola; denbora libre, hain juxtu ere. Honela, negozio sistema bat patentatzen du; negozio irriagarria, baina, ez horregatik, ez eraginkorra. Alderantziz, negozioak hain arrakasta handia edukitzen du, sistema ekonomikoa guztiz hausten duela. Antzezlan honen zuzendaria, eta aldi berean, Ados Konpainiako burua, Garbi Losada da. Konpainia honek, ospea lortu du espainiar estatuan, “Manolito Gafotas”, “Las mujeres de verdad tienen curvas” edo “Como agua para chocolate” obrei esker. Sarrerak, aurrez salgai egongo dira, goizez Kultura Sailean eta arratsaldetan, Gazte Informazio Bulegoan, 8,5 eurotan.



“Batuta” txontxongilo saioa izango da otsailaren 11n, Herriko Antzokian eta 16:30etik aurrera



“Txio txioka”, “Galtzerdia”, “Kont arte” eta “Te-A-U-ENE” antzezpen lanen ondoren, oraingo honetan, Taun Taun antzerki taldekoak, “Batuta” izeneko txontxongilo emanaldiarekin datozkigu. Familia osorri zuzenduriko saio hau ikus eta entzuteko abagunea, datorren domekan arratsaldeko 16:30etik aurrera, izango da, Herriko Antzokian. Ikuskizun honekin metafora bat iradoki nahi da. Bizitzaren urtaroei, bidaieki, eta maleta batean gordetarik doazen oroitzen zein bizipenek osatzen duten metafora, alegia.

Antzezpen honetako protagonista, “Batuta” izeneko txontxongilo bat da eta musika ibilbideari errepasu bat emango dio; musikagile klasikoenen doinuetatik hasi (Bach, Mozart, Haendel, edo Tchaikovsky) eta klasikoekin jarraituz, “Elvis Presley” eta “The Beatles” taldearen abestiei ere, leku bat eginez.

Guztira 16 txontxongilo arituko dira oholtza gainean, txiki eta helduen gozemenerako; musika, jokoak, eta istorioak lagun dituztela. Sarrerak egunean bertan salduko dira lehiatilan.

Jasone Osorok “Suite Erotique” erakusketako katalogorako ipuin bat idatzi du

Donostiako Koldo Mitxelena, Jose Antonio Sistiaga margolariak “Suite érotique” izeneko erakusketa inaguratu du eta bertako katalogoan Jasone Osoro kazetari elgoibartarrak idatzitako ipuin bat dator. Jasonek jakinarazi digunez, Sistiagak berak, aurrez erakusketako pinturak erakutsi zizkion eta horietan oinarrituta idatzi du ipuina. Gaztelerazko ipuina, aldiz, Miguel Sánchez Ostizek idatzitakoa da eta frantsesez, beriz, Dominique Noguezek.

EuskalNatura.net webgunea sortu du Antton Alberdik

Euskal Herriko natura eta zientziaren informazioa euskaraz jasotzen duen webgunea sortu du biologia ikasten diharduen gazte elgoibartarrak. Natura eta zientziak interneten duen presentzia urriari aurre egiteko sortu zuen Anttonek webgunea eta EHUko ikasle gazte talde batek dihardu atariaren osaketa eta garapenean. Informazioaz aparte, hainbat erreportaje, foro, argazki galeria, natur ekintzen agenda... aurki daitezke.

Betiko janaria beste modu batera

eta erraz prestatzeko

Ehun errezeta inguru biltzen dituen sukaldako eskuliburu honen egilea Karmen Sobejano da. Liburu praktikoa da, errezetak errazak eta merkeak dira, sukaldetan egunero erabiltzeko egokiak. Liburuak askotariko menuak prestatzeko aukera ematen du, eta sukaldetan jarduteko proposamen ugari egiten. Hasieran, entsaladak eta lehenengo plater hotzak eta beroak daude. Gero, bigarren platerak, lau taldetan sailkatuta: barazkiak, pastak eta irinak, aboreak eta proteinak. Eta, amaitzeko, azkenburuko goxoen aukera.



Otsailak 3, larunbata
kartilla + 1. kupioia

berriarekin



liburua DOAN!



Nola lortu liburua?

1.- ZURE KARTILLA ESKURATU

Otsailaren 3an (larunbata), BERRIArekin.

2.- KUPOIAK ITSATSI

Otsailaren 3tik aurrera, egunero kupoiak argitaratuko dira BERRIAN, guztira 14.

3.- KARTILLA OSATZEAN, KIOSKORA ERAMAN

eta DOAN jasoko duzu liburua.

HARPIDEDUNENTZAKO OHARRA:

Nahikoa izango duzue 943 30 43 45 telefonora deitzea edo www.berria.info fon izena ematea, eta bidalketa kostuen truke [1,95 euro] etxean jasoko duzue liburua.

Babeslea



Gipuzkoako Foru Aldundia

Aukera ezazu, BIZI euskaraz **berria**

ESKUBALOIA

Lojantzi eskubaloit taldea 2. postuan dago, 1. postutik puntu batera



Lojantzi eskubaloit taldeak bihar, Urdai-bairen aurka partidua jokatuko du Mundakan, arratsaldeko 16:30etik aurrera.

Elgoibarko senior nesken taldeak 2. postuan dirau, Euskadiko Eskubaloit Txapelketako sailkapen orokorrean, eta lehenengo postutik puntu batera dago. Guztira, 20 puntu eskuratu ditu, hamabi jardunaldiren ondoren. Biharko aurkaria, Urdai-bai taldea, berriz, bosgarren lekuan kokatzen da, 14 punturekin, baina, partida bat gutxiago jokatuta. Honenbestez, emozio handikoa izango da biharko norgehiagoka.

Modu berean, Tecnifuelle taldeko senior mutilek ere, partida garrantzitsua bezain erabakiorra jokatuko dute bihar Donostian, Egiaren aurka, arratsaldeko 19:30etik aurrera. Izan ere, Egia sailkapen nagusiko aurreneko postuan dago 29 punturekin, eta Tecnifuelle atzetik, bigarren tokian, soilik bi puntura.

Gogorarazi, bi partida hauetara joan ahal izateko, autobusean lekuan badagoela. Autobusari buruzko informazioa eskuratzeko eta izena eman nahi duen orok, ondorengo telefono zenbakira deitu dezake: 943 74 09 21.

Elgoibar Igeriketa Taldekoak Bergarako konpetizioan aritu ziren



Elgoibar igeriketa taldeko alebin neska eta mutilek pasa den zapatuan, urtarilak 27, Bergarako igerilekuan izan zen igeriketa proban parte hartu zuten. 100 metro bular alebin mailan, eta 1996. urtean jaiotakoen artean, Ane Espilla Juaristik, 1:47:47ko denbora lortu zuen. Honela, elgoibartarra, maila honetan hirugarren postuan sailkatu da Gipuzkoa mailan. Mutilei dagokionez, Aitor Santaran Zabala elgoibartarrak, 2:00:83ko denbora egin zuen 100 metro alebin bular kategorian. 400 metro libretan, berriz, 7:16:36ko denbora.

[EMAITZAK]

FUTBOLA

Haurdi 0 - Portugalete 2
 Elgoibar 3 - Mondragon 0 (Jub.mut.)
 Elgoibar 1 - Hemani 1 (O.Inf.)
 Elgoibar 3 - Hondarribia 0 (Inf. txik.)
 Amaika bat 1 - Elgoibar 4 (Nesk.)

ESKU PILOTA

Udaberri Txapelketa

Aretxabaleta 12 - Lagunak 22 (nagus.)
 Burumendi 22 - Lagunak 15 (Jub.)
 Lagunak 4 - Pagola 22 (Kad.)

ESKUBALOIA

IMH 25 - Ereintza 22 (Kad.nesk.)
 ITE Hondarribia 20 - Tecnomeca 29 (Kad.mut.)
 Leizaran 11 - Cometel 16 (Jub. nesk.)
 ITE Hondarribia 23 - Pneumax 31 (Jub.mut.)
 Lojantzi 25 - Ereintza 23 (Sen.nesk.)
 I.E.S. Construcciones 24 - Lojantzi 25
 Tecnifuelle 19 - Portugalete 9 (Sen.mut.)

[AGENDA]

FUTBOLA Mintxetan

Zapata, 3

12:00 Elgoibar - Anaitasuna (Nesk.)
 16:30 Elgoibar - Tolosa (Ereg.1.mail.)

Domekia, 4

12:00 Elgoibar - Beti Ona (Kad.)

ESKUBALOIA Kiroldegian

Zapata, 3

12:00 Olasa - Lauaxeta Egia (Inf. Nesk.)
 16:00 Cometel - Aloñamendi (Jub. Nesk.)

Domekia, 4

10:00 Tecnomeca - Trapagaran (Kad.mut.)
 11:30 Pneumax - Trapagaran (Jub.mut.)

ESKU PILOTA Ikastolako frontoian

21:00 Lagunak 1 - Aurrera Saiaz (1.mail.jub.)
 Lagunak 2 - Lizardi Igeldo (1.mail.jub.)
 Lagunak - Ilunpe 1 (1.mail.nagus.)

[ETXEBIZITZAK]

SALMENTA

- Jacan 50m²ko atikoa salgai. Urbanizazioan 2 igerileku. 2 logela, tximinia, aire egokitua. Hegoaldera begira. Garaje eta trastelekua. 230.000 euro. ☎ **630365025**
- Etxea salgai Pedro Muguruzan. 100m². Bizitzera sartzeko moduan. Igogailua eta ganbara. ☎ **615796592**
- Etxea salgai Basarten. 2 logela, 2 komun, egongela, sukaldea, garajea. Igogailuarekin. ☎ **635204219**

ALOKAIRUA

- Apartamentua alokatzen dut erdialdean. Sukaldea, komuna, logela eta egongela. ☎ **653863482**
- Logela bat alokatzen dut. ☎ **635206436**
- Gasteizen 2 logela alokatzen ditut. Erdialdean. ☎ **699099249**
- Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ **943530331**

[GARAJE eta LOKALAK]

- Taberna bat hartuko nuke alokairuan. ☎ **699609190**
- Garaje itxia alokatzen dut Jausoron. 85 euro hilean. ☎ **699812566**
- Garaje marraduna alokatzen dut Santa Ana kalean, Ametsa parean. ☎ **615787857**
- Garajea alokatzen dut kiroldegi aurrean. 60 euro. ☎ **680632339 (Arratsaldez)**
- Garaje marraduna alokatzen da San Roke kalean. ☎ **943741436**
- Lokal txikia alokatzen da. 18 urte-tik gorakoentzat. ☎ **667838858**

[AUTOAK]

- Citroen Berlingo furgoneta salgai. 1.9D. 225.000km. 2.000 euro. ☎ **679609283**
- Fiat Punto autoa salgai. 5 ate. Oso egoera onean. Merke. ☎ **656784199**
- Fiat Punto diesel auto berria salgai. Txuria. 150 km. ☎ **667060911/943743120**

[BESTELAKOAK]

- San Frantzisko kaleko edergintza bat traspasatzen da. ☎ **676686758**
- Haritz egurrean eginiko kutxa salgai. 60x90x1,95. ☎ **618854667**
- Estaldura elektrolitikoan (urrea, zilarra, nikel, letoia...) enpresa baten %50a saltzen da. 36.000 euro. ☎ **626346135**
- Sozietate gastronomiko batetako bazkide postua saltzen dut. ☎ **626346135**
- Ordenadore pantaila, inpresora eta teklatura salgai. Modu onean. ☎ **628598359**

OHARRA

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak lau astetan agertuko dira. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta 12 euro eta alokairua 8 euro. Autoak 8 euro. Eta bestelakoak 5 euro. Asteazken eguerdia baino lehen. Tel: 943 74 37 04

LANA

ESKAERA

- Emakumea nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **943531955/655909703**
- Mutil arduratsua lanerako prest. Eraikuntzan laguntzaile, adinekoak zainduz edo beste edozein lan. ☎ **638072538**
- Neska gaztea nagusiak zaintzeko prest. Esperientziaduna. Ospitalean edo etxean. Amaia. ☎ **656774215**
- Mutila edozein lan egiteko prest. ☎ **651156960/660441275**

Ileapaintzailea eskaintzen da etxetz-etxe joateko.



656 77 42 15
(Amaia)

- Emakumea garbiketa lanak egin edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **616397348**
- Mutila elektrikari edo sukaldari laguntzaile moduan lan egiteko prest. ☎ **943530132**
- Mutila sukaldari laguntzaile, kamarero, garbiketa lanak... egiteko prest. ☎ **638465098**
- Mutila kamarero edo sukaldari lanetan jarduteko prest. ☎ **671405061**
- Emakumea umeak edo nagusiak zaindu edota garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **697431326**
- Gizon gaztea peoi, igeltsero, arotz laguntzaile... moduan lan egiteko prest. ☎ **646816360 (Joselo)**
- Mutila lanerako prest. ☎ **695721080**
- Pertsona nagusiak zainduko nituzke. Ospitalean ere bai. Titulua eta esperientzia dauzkat. ☎ **630631839**
- 1. eta 2. hezkuntzako klase partikularrak ematen dira. ☎ **943531054**
- Emakumea garbiketa lanak edo sukaldari lanerako prest. Euskaraz dakit. ☎ **650014300**

- Igeltseroa lanerako prest. ☎ **627784494**
- Emakumea umeak zaindu, garbiketa lanak... egiteko prest. ☎ **943531309**
- Neska umeak zaintzeko prest. ☎ **669223527**
- Emakumea etxeko lanak egin edo nagusiak zaintzeko prest. Asteburuetan. ☎ **664775970**
- Emakumea lanerako prest. ☎ **639020180**
- Emakumea lanerako prest. ☎ **647400572**
- Gizona lanerako prest. ☎ **943530132 (Gabino)**
- Bi emakume lanerako prest. ☎ **943033601**
- Mutil gaztea asteburuetan lan egiteko prest. ☎ **627104915**
- Emakumea eskaintzen da lanerako. Astean 3 egun. ☎ **666701846 (Maria)**
- Emakumea eta gizona lanerako prest. ☎ **626416367**
- Mutila igeltsero edo txofer lane-tarako prest. ☎ **664576697**
- Emakumea lanerako prest. ☎ **699813826**

ESKAINNTZA

- Neska euskalduna behar da Eibarko taberna batetarako. Asteburuetarako. ☎ **669977225**
- Sukaldaria behar da asteburuetarako. ☎ **943531035**
- Mendarona emakume euskalduna behar da etxeko lanak egiteko. Orduka. ☎ **943033707**
- Harategirako mutil euskalduna behar da. ☎ **943742048**
- Jatetxerako kamarera eta sukaldari laguntzailea behar dira. ☎ **943121262**

ABISUAK

- Abenduaren 30ean kanarioak ihes egin zidan Pedro Migel Urruzuno kalean. Saritu egingo da. ☎ **943740122**
- 4 urteko alemaniar artzai txakur emea eta 3 hilabetezko euskal artzai txakur arra oparitzen dira. Pedigreearekin. Oso mantsoa. ☎ **696263512**
- Urrezko eraztuna galdu nuen abenduaren 24an. Amaitista bat eta brillante txikiak ditu alde bietara. ☎ **943740937**
- Sofa zaharrak hartuko genituzke. ☎ **659769721**

[ZORIONAK]



• Zorionak **maitia** astelehenean 5 urte egingo dituzulako. Ekain, aitaxo eta amatxoren partez.



• Zorionak **Ariana** 13 urte egin dituzulako. Familiakoen eta bereziki, anaia Anderren partez.



• Zorionak **Miren** atzo 7 urte egin zenituelako. Familiakoen eta bereziki, ahizpa Nagoreren partez.



• Zorionak amama **Antiguari**. Eskerrik asko hain ondo zaintzen gaituzulako. Iloben partez.



• Zorionak **Alejandro**, etxeko katxupinillo ederrenari. Etxekoan partez.



• Zorionak gure **txapeldunari** hilaren 31n 9 urte egin zenituelako.



• Zorionak **Arhane** zure 4. urtebetetzean. Ondo pasa! Familiakoen eta bereziki, asko maite zaituen lehen-gusu Sugarren partez.



• Zorionak **maitial** Pastela eta bi kandelatxo prest dauzkagu. Zure festara Meñito otsua ere etorriko da. Uaaaaa! Musutxuak.




• Zorionak **Naiara** gaur 4 urte egin dituzulako. Anaia Ibon eta familiako guztien partez.



• Zorionak zuri... Zorionak **Narrea** zure 3. urtebetetzean. Ondo pasa eguna! Familiakoan partez.



• Zorionak **Ander** gaur 6 urte egin dituzulako. Oso ondo pasa! Familiakoan eta bereziki, anaia Gorkaren partez.



• Zorionak **Markel** urtarrilaren 29an 3 urte egin zenituelako. Aita, ama eta arreba Maialenen partez.



• Zorionak **Larrai** 15 urte! Zahartzen ari zera! Koadrilakoan eta bereziki, Noraren partez. Muxu asko, guapisima!

• Zorionak **Nahia** hilaren 5ean urte 1 egingo duzulako. Etxekoan partez muxu handi bat.

Zerbitzuak

[OKINDEGIA]



4 igandea BOLINTXO



[FARMAZIAK]

2	GUARDIA 24 ORDUZ
3	Fernandez
4	Yudego
5	Yudego
6	Zabaleta
7	Etxeberría (Errosario)
8	Ibañez
9	Bidasolo
	Etxeberría (Santa Ana)

* Beti dago guardiako farmazia
Eibar/Ermua zonaldean.

KANPOKO FARMAZIAK
IBAÑEZ
Rekalde, 1 Soraluze.
Tel: 943 75 16 38

FERNANDEZ
Herriko enparantza 4, Garagarza.
Tel: 943 75 61 42

ZABALETA
Kalebarren, 9 Soraluze.
Tel: 943 75 13 84



[TELEFONOAK]

OSASUNA

Anbulatorioa	943 03 26 10
Larrialdiak	943 46 11 11
Planning-a	943 74 29 50
Alkoholiko Anonimoak	943 74 03 85
D.YA (anbulantzia)	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 74 38 64
Mendaroko Ospitalea	943 03 28 00
Odol Emailak	943 74 39 36

UDALA

Euskara Zerbitzua	943 74 43 66
Kultura Zerbitzua	943 74 21 58
Hirigintza	943 74 43 84
Epaitegia	943 74 16 30
Haziena	943 74 44 14
Mendaroko Udala	943 03 32 82
Ongizate zerbitzua	943 74 10 08
Udaletxea	943 74 10 50
Udaltzaingoa	943 74 13 94
Debemen	943 74 40 67

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak	943 74 04 42
PESA (Eibar)	902 10 12 10
Taxi geltokia	943 74 08 98
Bizkaibus	902 222 265

BESTELAKOAK

BARREN astekaria	943 74 41 12
Elgoibarko Izarra	943 74 16 26
Kirolegia	943 74 44 15
Kontsumo Bulegoa	943 74 30 88
Liburutegia	943 74 35 25
Musika Eskola	943 74 21 45
Mintxeta	943 74 43 15
Parrokia	943 74 08 42
Postetxea	943 74 15 47
Gazte Informazioa	943 74 14 61
KZ gunea	943 74 88 28

ADINEKOEN ETXEAK

San Lazaro Egoitza	943 74 02 96
Zaharren Biltokia	943 74 05 26
Eguneko Zentroa	943 74 45 65

IKASTETXEAK

Haur Eskola	943 74 21 41
HHI (EPA)	943 74 08 80
Herri Eskola	943 74 08 79
I.M.H.	943 74 41 32
Institutua • Arreiturre	943 74 80 19
•Ezenarro (Meka)	943 74 80 19
Ikastola	943 74 44 41
Pilar Ikastetxea	943 74 13 31



[AUTOBUSAK]

ELGOIBAR - DONOSTIA

Astegunak:
7:10, 8:10, 9:00, 10:45, 13:45, 14:00,
15:10, 15:40, 16:00, 18:45, 20:00,
20:45

Larunbatak:
7:10, 9:00, 10:45, 13:45, 14:00, 15:10,
18:45, 20:00

Igandek eta jaiegunak:
9:45, 10:30, 13:45, 18:45, 20:00,
20:45

Pesa: 902 10 12 10

DONOSTIA - ELGOIBAR

Astegunak:
7:00, 8:15, 9:30, 12:00, 12:30, 13:30,
15:00, 17:30, 19:30, 20:45.

Larunbatak:
8:15, 12:00, 12:30, 15:00, 17:30,
19:30, 20:45

Igandek eta jaiegunak:
12:30, 17:30, 19:30, 20:45.

PESA: 902 10 12 10

ELGOIBAR - MENDAROKO OSPITALA

Astegunak:
6:15, 6:40, 6:45, 7:35, 8:15, 8:45...
ordu erdika. Azkena; 20:45.

Asteburuak eta jaiegunak:
7:15ean hasita, orduka. Azkena; 22:15.

EUSKOTREN: 902 543 210

MENDAROKO OSPITALA - ELGOIBAR

Astegunak:
6:55ean hasita, ordi erdiro. Azkena
21:55.

Asteburuak eta jaiegunak:
7:55ean hasita, orduka. Azkena, 21:55.

EUSKOTREN: 902 543 210

LARUNBAT GAUEKO ZERBITZUAK

EUSKOTREN: 902 543 210

ELGOIBAR-DEBA

1:05, 2:35, 4:35, 6:05

DEBA-ELGOIBAR

12:10, 1:55, 3:40, 5:25

ELGOIBAR-EIBAR

12:25, 2:10, 3:55, 5:40

EIBAR-ELGOIBAR

1:00, 2:30, 4:30, 6:00

[3 ZAPATUA]

09:00 SANTA ESKEA HERRIKO KALE ETA AUZOETAN "ETXEGIÑA" TALDEAREN ESKUTIK

Antolatzailea: Etxegiña taldea.
Iriteera: Bolatokiko parketik.

11:30 "IMH INGENIARITZA ESKOLAKO ATE IREKIAK"

IMH ko Karakate Gelan.

16:00 MILAKABILAKA MANIFESTAZIOARA JOATEKO AUTOBUSA

Iriteera Plaza Handian
Manifestazioa Bilbon izango da,
Areatzakoko zubitik Guggenheim
museoraino.

S I N O P S I A K

«Casino Royale»



[4 DOMEKIA]

09:30 "SANTA ESKEA BASERRIZ BASERRI" (15. urteurrena).
Irteera: Plaza Handitik.
Antolatzailea: Elgoibarko Izarra.

12:30 UDAL MUSIKA BANDAREN KONTZERTUA
Herriko Antzokian.
Egitaraua: "Puenteareas" (R.Soutullo), "Finlandia" (J. Sibelius), "The Conquest of Paradise" (Vangelis), "March" (D. Sostakowich), "Concert D'Amore" (J. de Haan), "Cantos Vascos" (P. de Alberdi).

[5 ASTELEHENA]

11:00-13:00 edo **18:00-20:00**
"IT KZGUNEA: INTERNETEKO DOAKO IKASTAROA"
(16 urtetik gorakoentzat; otsailaren 16ra arte).

16:30 KARTA TXAPELKETA
Jubilatuaren Etxean.

[7 EGUAZTENA]

18:30 "GURASOEN FORMAZIORAKO VIII. JARDUNALDIAK: GURASO ETA SEME- ALABEN ARTEKO GATAZKAK HAURTZAROTIK NERABEZARORA ARTE"
Kultur Etxeko Hitzaldi Gelan.
Antolatzaileak: Elgoibarko Institutoko eta Herri Eskolako Gurasoen elkarteak.
(Jardunaldi hauek, otsailaren 14 eta 21ean ere izango dira).

ZINE KARTELDEGIA

ELGOIBAR HERRIKO ANTZOKIAN



«Casino Royale»
2, barixakua: 22:15
3, zapatua: 19:30-22:15
4, domekia: 19:30-22:15
5, astelehena: 21:30
«Arthur y los minimois»
4, domekia: 16:30
«El Perro Mongol» (Z.K.)
8, eguena: 21:30

EIBAR, UNZAGA

«Apocalipto»
2, barixakua: 19:30-22:15
3, zapatua: 17:00-20:45-22:30
4, domekia: 17:00-20:45-22:30
5, astelehena: 19:30-22:15
6, martitzena: 19:30-22:15
7, eguaztena: 19:30-22:15

BARREnek ez du gerta litezkeen emanaldien aldaketan erantzukizunik.

«El Perro Mongol» (Z.K.)

Zuzendaria: Martin Campbell.
Antzezleak: Daniel Craig, Eva Green...

James Bond 007 agentearen misioa, oraingo al-dian, Le Chiffre-ri aurre egitea izango da; munduko gaizkile guztien bankari den gizonezkoari, alegia. Gaizkile hau geldiarazteko eta sare terrorista hausteko, Le Chiffre garaitu beharko du "Casino Royalen" jokatu duten poker partida batean, non, apostu handiak burutuko dituzten. Vesper Lynd, berriz, go-bemuaren dirua zaintzeko ardura duen altxortegiko ofizial bat da. Biek, Chiffrearen erasoei aurre egin beharko diete.



Zuzendaria: Byambasuren Davaa.
Antzezleak: Batchuluun Urjindorj, Buyandulam Daramdadi Batchuluun...

Nansal, familia mongol bateko alaba zaharrenak, txakur kume bat aurkitzen du eta etxera eramaten du. Aitak ordea, berehala, txakurra uzteko agintzen dio alabari, zorte txarra ekar diezaikeenaren beldur baita, otsoen ondorengoa izan daitekeelakoan. Nansalek, ordea, txakurra berarekin izaten jarraituko du. Istorio honek, txakurra eta gizakiaren artean aintzina zegoen lotura kontatzen digu. Bereziki, Mongolian berraragiztaztearen zikloan duen garrantzian zentratzen delarik.

Atzera hegira



1969 urteko erretratu zahar hau **Juanito Gorostizak** laga digu. Santa Eskean ateratako argazkia da. Asteburu honetan, herriko kaleak eta baserriak kantuz jantziko dituzte koplariak eta polita iruditu zaigu argazki hau argitaratzea. Gure herrian tradizio handia dauka Santa Eskeak. Urte asko dira dagoeneko, Santa Eskea egiten dela. Behartsuentzako dirua eskatzen da kalejira honetan. Etxegiña taldea ageri zaigu erretratu honetan, parrokiako atarian. Etxegiña bertsolaria eta Santi Kortaberria aritu ziren urte askotan talde honen gidari. Biak ageri dira argazkian, batak semea eta besteak iloba azpian dituztela. Karmelito famatua ere ezagutu dugu argazkiaren erdi-erdian, baina gainontzekoak ezagutzeko zailtasunak izan ditugu. Seguru gure irakurleek bat baino gehiago ezagutuko dutela.



ESKERTZA

2007ko urtarrilaren 25ean hil zen

Sole Albo Gainzaren sendiak,

bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ESKERTZA

2007ko urtarrilaren 17an, 70 urte zituela hil zen

Jose Antonio Casado Corcueraren sendiak,

bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ZEZEN-BIDE

AUTO ESKOLA



Autorako B agiri teorikoa **18 urte bete baino lehen** eskura dezakezu!

Ordenagailu bidez teoria ikasteko gela berria!



ORDUTEGIA

10:00etatik-12:30era

15:00etatik-20:30era

San Frantzisko, 43 - 1. solairua

Tel. 943 742 720

20870 ELGOIBAR

Ego Gain, 4 behea

(San Andres pasealekutik)

Tel. 943 203 445 - 20600 EIBAR

2007^{ko} Gida Komertziala

Elgoibar eta Mendaro



- Diseinu berria.
- Dena koloretan.
- Mapak
- Autobus eta trenen ordutegia
- Farmazien egutegia

Informazioa:

943 74 37 04

barren.publi@elgoibarkoizarra.com

Eta 2007an www.elgoibarren.net web orrian jarriko dugu denon eskura.

ANTZERKI MUSIKALA

el vendedor de tiempo

Otsailak 9, ostirala
22:15ean

Herriko Antzokian



ados
teatroa



TXOTXONGILOAK

batuta

Taun Taun
teatroa

Otsailak 11,
igandea
16:30ean
Herriko Antzokian



KULTURA SAILA



FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA



SAREA